



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

AZKOITIKO UDALEAN LAN IZAERAKO ETA ALDI BATERAKO HIRU PEOI HAUTATZEKO PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK.

Lehenengoa. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea balio anitzeko hiru peoi kontratatzea da, iraupen mugatuko obra edo zerbitzuko kontratuaren erregimenean, lehiaketa-oposizio libreko sistema erabiliz.

Lanpostuen ezaugarriak honako hauek dira:

- Lanpostuak: 3 balio anitzeko peoiak, horietatik bi makinista.
- Izaera: Aldi baterako Lan-kontratudunak, obra edo zerbitzurako.
- Hautaketa-sistema: Lehiaketa-oposizio librea.
- Taldea: C2 parekidea.
- Ordainsariak: **UDALHITZ 9**
- Lanaldi osoa: Azkoitiko Udalak urtero ezarritako ordutegiarekin, lanpostuen ezaugarri eta beharren arabera.
- Hizkuntza-eskakizuna: 1. HE
- **Gutxieneko titulazioa: Eskola graduatu agiria, Lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea.**
- **Makinisten kasuan, C motako gida baimena izan beharko dute.**

Kontratazioaren xedea Azkoitiko Udaleko Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi delegatuak onarturiko lan-programa garatzea izango da eta aldi baterako kontratazioa bertan behera geldituko da xedea den obra edo zerbitzua amaitzen denean. Hala ere, burutu behar diren lanak kontutan harturik, kontratuen gutxieneko iraupena **BI URTEKOA** izatea aurreikusten da.

Egun osoko lanaldia izango du eta lanaldia eta ordutegia urtero Udalak erabakitzen dituenak izango dira, beti ere zerbitzuen beharren arabera.

Hautaketa prozesuko ariketak gainditu ostean, peoi-makinisten multzoan lehenengo gelditzen diren bi izangai, eta gainontzekoen multzoan aurrenekoa gelditzen dena **kontratatuko dira**, baina ariketak gainditu dituzten gainontzeko izangaiekin lan-poltsa osatuko da lortutako puntuazioaren hurrenkera errespetatuz, Azkoitiko Udalak antzeko eginkizunak dituzten peoi lanpostuetan izan ditzakeen aldi baterako beharrak betetzeko.

Bigarrena. Eginkizunak.

PEOI-MAKINISTEN zereginak bete behar dituzten bi langileen berariazko funtzioak, gainontzeko zereginen kalterik gabe, honako hauek izango dira:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- ❖ Hondeamakina eta lanpostuari dagokion gida-baimenarekin bat datozen beste ibilgailuak gidatu eta horiekin egin daitezkeen lanak burutu: zangak ireki, lur mugimenduak, bide garbitzeak...).
- ❖ Ibilgailu eta berari eranstean zaizkien elementu eta tresna osagarriak erabili eta beharrezko segurtasun maila bermatzen duten mantentze lanak egin, udalak emandako irizpideen arabera.
- ❖ Ibilgailuen eta lan tresneriaren oinarrizko mantentze eta zaintze lanak burutu, lan hauen garapen egokirako beharrezkoa denean kanpoko zerbitzuen kontratazioa lantalde buruari eskatuz.

Balio Anitzeko PEOI-SOLDATZAILE lanpostuaren berariazko funtzioak, besteen kalterik gabe:

- ❖ Lantaldeak gauzatu behar dituen soldatze lanak egitea.
- ❖ Soldadurarekin zeresanik duten tresneriaren oinarrizko mantentze eta zaintze lanak burutzea.

Balio anitzeko hiru peioen zeregin orokorrak:

- ❖ Udal jabariko ondasun eta instalazioetan mantentze lanak egitea (altzariak, eserlekuak, ateak, paperontziak, leihoak, fluoreszenteak, etab.), udal instalazioetan, bulegoetan eta egoitzetan.
- ❖ Bide-seinaleak jartzea eta horien mantentze-lanak egitea: seinaleak, zedarriak eta pibotak (dagozkien ainguralekuak dituztela) muntatzea eta jartzea.
- ❖ Ur-ponpen saneamendua egitea, Gabonetako argiak jartzea, etab.
- ❖ Udalerriko lorategi eta berdegune publikoetan lorezaintza lanak, landare eta belar mozketak, landaketa zein garbiketa lanak egitea.
- ❖ Udalerriko berdeguneak ongarritu, zuhaitz zein landareak fumigatu, loreak ureztatu. Pasabidea ekiditeko itxiturak egitea edo bestelako ekipamenduak ipintzea aisialdiko guneetan.
- ❖ Lorezaintzako erremintak zaindu eta ibilgailuak gidatu.
- ❖ Zenbait nekazaritza guneetan landa-bideak mantentzea eta sastrakak garbitzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- ❖ Agintzen zaizkion errementaritzako, zurgintzako eta pinturako zenbait lan egitea, eraikin eta ondasun publikoetan.
- ❖ Hesiak, seinaleak, oholtzak eta abar jartzea, muntatzea eta desmuntatzea, eta laguntza lanak egitea ekitaldiak (idi probak, feriak, kontzertuak, etab.) eta jaiak prestatzean.
- ❖ Zenbait material garraiatzea, kargatzea eta deskargatzea.
- ❖ Bide-garbiketako zenbait lan egitea, lanpostuari dagokion eremuan, hirigune barnean nahiz kanpoan (espaloietan, areketan, parkeetan, merkatuetan, estolda-zuloetan, ikastetxeetan, erreken bokaleetan, ibai-ubideetan eta abarretan). Zenbait egoeratan (uholde-euriteak, etab.) euri-uren sareak (estolda-zuloak, saretak, etab.) libre egoteaz arduratu behar du.
- ❖ Baserri bideen mantenu eta konponketa lanak egitea.
- ❖ Kultur eta kirol ekintzetarako azpiegitura prestatzen laguntza ematea.
- ❖ Kaleetako elurra kentzen laguntzea.
- ❖ Hilerriari dagozkion lanetan laguntza ematea, ehorzketak eta instalazioaren mantentze lanak burutuz.
- ❖ Lankideei lagundu lan pilaketa uneetan.
- ❖ Baliabide materialen, ibilgailuaren eta tresneriaren oinarritzko mantentzeaz arduratu eta arduradunei euren egoeraren berri ematea.
- ❖ Orokorrean, Zerbitzu eta mantenu saileko beharizanen arabera, Obra eta zerbitzuetako enkargatuak agintzen dizkion lanak burutzea.

Hirugarrena. Izangaien baldintzak.

Onartua izateko eta kasua balitz lehiaketa-oposizioan parte hartzeko nahitaezko baldintzak ondokoak izango dira:

a) Hiritartasun espainiarra, edo Europako Batasuneko estatu kideetakoren bateko herritarra izatea, Europako Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako tratatu nazioartekoen bertutez langileen zirkulazio librea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritarra izatea edo Espainian legezko bizilekua duen atzerritarra izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren 7/2007 Lege apirilaren 12koak 57. artikuluan xedatzen duenaren arabera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Halaber, espainiarren eta Europako Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideek parte hartu ahalko dute, betiere zuzenbidez bananduak ez badaude, baita haren eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere era berean, zuzenbidez bananduak ez badaude, baldin eta hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, urte gehiagoko adina izanda ere, haien dependentziadunak badira.

b) Hamasei (16) urteak beteak izatea eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, Eskola graduatu agiria, Lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea den titulazioaren jabea izatea edo eskuratzeko eskubideak ordaindurik edukitzea.

d) Lanpostuko eginkizunak behar bezala betetzeko gaixotasunik, akats fisiko edo psikikorik ez edukitzea. Puntu hau bere momentuan egiaztatu beharko da bidezkoa den azterketaren bidez, Udaleko Mediku zerbitzuak egindakoa.

e) Diziplina-espediente bidez Estatuaren zerbitzura dauden erakundeetatik, Elkarte Autonomoetatik edo Tokikoetatik baztertua ez izatea, ezta eginkizun publikoak egiteko ezgaitua ere.

f) 1. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzen duen titulua edo horren baliokidearen jabe izatea, edo dagokion froga gainditzea.

Eskakizun hau 1. hizkuntza eskakizunaren mailari dagokion azterketa eginez egiaztatu ahal izango da hautaketa prozesuaren barne; nolahi ere, hizkuntza eskakizunaren edo baliokidearen jabe dela egiaztatzen duenak ez du azterketarik egin beharko, horretarako, izangaiek inguruabar hau beren eskaeran jasoarazi beharko dute, eta eskaerarekin batera dagokien egiaztatzea aurkeztu beharko dute.

g) **Makinisten** kasuan, eskatutako tituluz gain, **C gida-baimenaren** jabe izatea eta hori egiaztatzea.

h) Kontratua suertatuz gero, kontratua izenpetzen den egunean, Herri Administrazioetako Pertsonalaren Bateriaezintasunak arautzen dituen abenduaren 26ko 53/1984 Legeak bateraezinak deklaraturako jarduerak ez burutzea.

Izangaiek, deialdian onartzeko eskabide-orriak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete beharko dituzte baldintza guztiak, hizkuntza-eskakizunarena salbu (tituluaren jabe ez diren kasuetan).



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Laugarrena. Eskabideak aurkeztea eta agiriak.

Azkoitiko Udaleko Erregistro Orokorreko bulegoan eta www.azkoitikoudala.info web orriko Lan-
eskaintzen atalean jaso daitekeen eredu ofizial eta arautuari egokituko zaio instantzia.

Lehiaketa-oposaketan parte hartzeko eskatuz beteko diren instantziak Azkoitiko Udaleko Alkate
jaunari zuzenduko zaizkio, eta instantzia horiek onartuak izateko ondorengo baldintzak bete
beharko dituzte:

- a) Izangaiek oinarrien hirugarren klausulan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela
adierazi behar dute, betiere eskaerak aurkezteko epea amaitzen denerako.
- b) Eskabidearekin batera honakoak aurkeztu beharko dira: Nortasun Agiriaren kopia konpultsatua,
eskaturiko tituluaren kopia konpultsatua, kasua bada, 1. hizkuntza eskakizuna
egiaztatzen duen dokumentuaren kopia konpultsatua eta **makinisten kasuan**, C gida
baimenaren kopia konpultsatua.
- c) Horretaz gain, lehiaketa fasean baloratuko diren merituen egiaztagiria aurkeztu behar dira,
jatorrizko dokumentuak edo konpultsaturiko kopiak izan behar direlarik.

Laneko esperientzia egiaztatu, lan egindako enpresek edo Administrazioek egindako ziurtagirien
bidez egiaztatu beharko da, bertan kontratuaren iraupena eta eginkizunak zehaztuz. Esparru
pribatuko esperientzia egiaztatzeke, gainera, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren ziurtagiriak
aurkeztu behar dira.

Eskabidean Azkoitiko Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia adierazi badira, ez da
agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen
arabera baloratuko dira.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeke aurkeztuko duen agirian, haren
iraupena zehaztu beharko du. Horrela egin ezean, Epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu
hori baloratzea edo ez.

- d) Halaber, hautagai bakoitzak zehaztu behar du ze motatako frogetan parte hartuko duen,
makinista lanetan edo soldatze lanetan duen gaitasuna frogatzeko.

Instantziak, behar bezala beteta eta izenpetuta, Azkoitiko Udaleko Erregistro Orokorrean
aurkeztu beharko dira, **Azkoitiko udaleko web orrian argitaratzen den biharamunetik
zenbatzen hasi eta hurrengo 15 egun naturaleko epearen barruan.**



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Eskabideak, era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako Administrazioetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira. Azkoitiko Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio eta eskabideak aurkeztuko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dute. Izan ditzaketen egitatezko akatsak, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

Eskabideak posta bulegoetan aurkezten badira, epea amaitu baino lehenago egin beharko da, gutun-azal irekian, postetxeko funtzionarioak behar bezala data jarri eta zigilua eman diezaien. Horrela eta ez bestela ulertuko da postetxean aurkeztutako egunean sartu zirela eskabideak.

Bosgarrena. Izangaien onarpena.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Alkatetzaren erabakia emango da, eta onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko da. Zerrenda hori Udaleko iragarki-oholean eta www.azkoitikoudala.info web orrian jarriko da eta hautagaiek 5 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko, iragarria argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Erreklamaziorik edo zuzenketarik egon ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, eta egonez gero, onartu edo baztertu egingo dira, adierazitako moduan argitara emango den behin betiko zerrenda onartzeko beste erabaki baten bidez.

Onartutako eta baztertutako izangaien zerrendarekin batera, epaimahaia nork osatuko duen argitaratuko da, baita aurreneko ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua ere.

Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahaia kalifikatzailea ondorengoek osatuko dute:

Mahaiburua:

- Lantaldearen ardura duen udal Aparejadorea edo hori ordezkatu duen teknikaria

Mahaikideak:

- Biltegi eta Brigada arduraduna edo hori ordezkatu duen langilea
- Ingurumen teknikaria edo hori ordezkatu duen funtzionarioa
- Udal Idazkaria edo hori ordezkatu duen funtzionarioa: halaber, honek Epaimahaiaren Idazkari



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

lanak egingo ditu.

Epaimahaikideak Alkateak izendatuko ditu, Enplegu Publikoaren Estatutuaren 7/2007 Legearen 60. artikuluan xedatutako irizpideak jarraituz. Epaimahaikideen izendapena Udaletxeko iragarki-taulan eta www.azkoitikoudala.info web orrian argitaratuko da. Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezingo dute esku hartu, Alkateari jakinaraziz, 30/92 Legeko 28. artikuluan xedatutako gorabeherak gertatzen badira. Baita ere Lege berdineko 29. artikulua xedatzen duen arabera errefusatu ahal izango da.

Epaimahaia ezin izango da eratu eta, hortaz, ez du jarduterik ere izango Epaimahaiko Lehendakaria, Idazkaria eta kideen erdia baino gehiago bertan ez badago.

Erabakiak botoen gehiengoaz hartuko dira, berdinketa emanaz gero Epaimahaiko Lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiz.

Zazpigarrena. Oposizio-aldia

Azkoitiko Udaleko web orrian www.azkoitikoudala.info eta iragarki-oholean argitaratuko dira ariketak egiteko deialdiak eta han adieraziko dira azterketak zein egun, ordu eta tokitan egingo diren.

Epaimahaiak oinarri hauetan zehazten diren oposizio-aldiko ariketen hurrenkera aldatzeko ahalmena izango du, baita egun berean bi ariketa egiteko aukera ere.

Oposizio faseko ariketa guztiak, derrigorrezkoak eta baztertzailak izango dira.

—*Lehenengo ariketa: Teorikoa.* Oinarri hauetako Eranskinean ageri den **Gaitegi orokorraren edukiarekin eta lanpostuen berezko funtzioekin (makinista edo soldatze) zerikusia duten galderei** erantzun beharko zaie, Epaimahai Kalifikatzaileak horretarako ezartzen duen denboran.

Epaimahai kalifikatzailearen irizpidearen baitan geratzen da ariketa hau egitean zein prozedurari jarraitu finkatzea (test moduko galdera-sorta, gai bat edo batzuk garatzea, etab.), eta, kasua hala bada, gaizki erantzundako galderak zehatu edo ez erabakitzea.

Kasu guztietan, burutu behar diren azterketek bi atal izango dituzte:

- Atal bat orokorra, izaera anitzeko peoien zereginekin lotuta.
- Beste bi atal, non bereiztuko diren makinista eta soldadoreen berariazko zereginak. Hautagai bakoitzak aukeratu behar du bi atal berezi hauetako bat, dagozkion galderei erantzuteko garaian.

Lehen ariketa honi hamabost (15) puntu emango zaizkio gehienez, eta zazpi t'erdi (7,5) puntu



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

bederen lortu beharko dira gainditzeko eta hautaketa prozesuan aurrera jarraitzeko.

- *Bigarren ariketa: Euskarako froga.* Lanpostu hauentzat derrigorrezkoa den 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da eta egiaztatu ezean, IVAP-HAEE-k deituriko azterketa egin beharko da, «gai» edo «ez gai» gisa kalifikatua izango delarik. Dena dela, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikulua araber, aurreko ariketatik libre geratuko dira 1. hizkuntza eskakizuna edo parekoa dutela agiri bidez frogatzen dutenak.

— *Hirugarren ariketa: Froga praktikoa.* Lanpostuen oinarrizko funtzioekin zerikusia duen ariketa praktikoa.

Froga praktikoa honek ere bi zati izango ditu:

- Atal bat orokorra, izaera anitzeko peoien zereginekin lotuta.
- Beste bi atal, non bereiztuko diren makinista eta soldadoreen berariazko zereginak. Hautagai bakoitzak aukeratu behar du bi atal berezi hauetako bat, dagozkion ariketak egiteko garaian.

0-35 bitarteko puntuazioa izango du eta gainditzeko beharrezkoa izango da gutxienez 17,5 puntu lortzea, eta bi atalak -orokorra zein espezifikoa- gainditzea .

Zortzigarrena. Lehiaketa-aldia

Oposizio-fasea gainditzen duten izangaiak lehiaketa-fasera pasako dira eta fase horretan Epaimahaiak ondorengo meritua baloratuko ditu, beti ere laugarren oinarrian aurreikusitakoaren arabera egiaztatu badira.

Lan eskarmentua:

- Edozein Herri Administrazioan izandako esperientzia, baldin eta lanpostu honetako antzeko eginkizunak eginak izanez gero, gehienez ere 5 puntuz baloratuko da, hileko 0,10 puntu zenbatuko direlarik.
- Enpresa pribatuan izandako esperientzia, bete behar den lanpostuarekin lotutako zereginak burutuz: 3 puntuz baloratuko da, hileko 0,06 puntu zenbatuko direlarik.

Prestakuntza osagarria:

- Lanpostuen zereginak betetzeko gaitasuna ematen duten titulu ofizialak: bakoitzak puntu 1, gehienez ere 3 puntuz baloratuko dira
- Prestakuntza osagarria lanpostuarekin zerikusia duten gaietan, eta batez ere, eta oro har, epaimahaiaren ustetan izangaiek prestakuntzaren hobekuntzak egindako eginkizunak,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

lantaldearen zereginetan lagungarriak izan zaitezkeenak, gehienez ere 5 puntuz baloratuko dira, ordu bakoitzak 0,01 puntu izango duelarik.

Bederatzigarrena. Ariketak kalifikatzea, epaimahaiaren proposamena eta agiriak aurkeztea.

Oposaketa eta lehiaketaren emaitzak batu ondoren, behin betiko puntuazioa osatuko da. Epaimahaiak, azken puntuazioen hurrenkeraren arabera proposatutako izangaien datuak udaletxeko iragarki-taulan eta web orrian erakusgai jarriko ditu.

Epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako izangaietako inork lanpostua betetzeko beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak betetzen ez baditu, hura hutsik deklaratu ahal izango du.

Berdinketa gertatuko balitz, epaimahaiak ondorengo irizpideen arabera jardungo luke, hurrengo hurrenkerari jarraiki:

- Oposizio-aldian punturik gehiena lortu duena.
- Hirugarren ariketan punturik gehiena lortu duena.
- Emakumeei emango zaie lehentasuna, administrazioko dena delako kidego edo eskalan emakumeak %40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean.

Epaimahaiak ez du inoiz deitutako lanpostuak baino izangai gehiago proposatuko. Era honetan, makinisten zerrendatik bi izangai eta gainontzeko peoien zerrendatik izangai bat baino gehiago ezingo ditu proposatu.

Proposatutako izangaiak, lehiaketa-oposizioan parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzea egiaztatzen duten jatorrizko dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu, aipatutako argitalpenaren egunean hasi eta 10 egun naturaleko epearen barruan.

Halaber, lan-kontratua sinatu aurretik, Udaleko mediku zerbitzuen ikuskapena pasatu beharko du, bere osasun egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko.

Hautaketa prozesua gainditu duten gainontzeko hautagai guztien zerrenda puntuazioaren arabera sailkaturik, Azkoitiko Udalean antzeko eginkizunak dituzten peoi lanpostuetan egon daitezkeen aldi baterako beharrak betetzeko lan poltsa gisa erabiliko da.

Dagokion epealdian, eta ezinbesteko arrazoiek oztopatu ezean, proposatutako izangaiak ez balu eskatutako dokumentazioa aurkeztuko, edo dokumentazio hori aztertu ondoren aterako balitz eskatu diren baldintzetakoren bat ez duela betetzen, ezingo zaio kontraturik egin eta indarrik gabe geldituko dira hari buruz egindako jarduera guztiak, faltsukeriagatik eska lekizkiokeen



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

erantzukizunen kalterik gabe. Horrela gertatuz gero, puntuaketa zerrendan ondoren datorren izangaiaren aldeko proposamena egingo du horretarako eskumena duen organoak, eskatutako baldintzak beteko balitu, beti ere.

Era berean, lan-poltsa osatzen duten izangaiek ere, Udaletik aldi baterako beharrak asetzeko lanerako deitzen zaienean, lanean hasi aurretik oinarrien hirugarren atalean ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko jatorrizko agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hamargarrena. Kontratazioa eta praktika-aldia

Organo eskudunak Epaimahaiak proposaturiko izangaia kontratatuko du aurreko oinarrian esandako agiriak aurkeztu eta gero. Kontratu honek, bi hilabetetako probaldia izango du.

Probaldiko epea amaitu aurretik, Lantaldearen arduradunak probaldia kontsideratzen den epe horretan diharduen langileari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasun hauek hartuko ditu kontuan txosten horretan: lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa. Lan-taldera moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Epea amaituta izangaia probaldia gainditzen badu, aldi baterako laneko pertsonal (obra edo zerbitzuetan) bihurtuko da.

Bestela, eskubide guztiak galdu egingo ditu, organo eskudunaren erabaki bidez eta ez zaio kontratu berririk egingo.

Hamaikagarrena.- Izaera pertsonaleko datuen babesa

Hautaketa prozesuan zehar izangaiek ekarritako izaera pertsonaleko datuei, datu pertsonalen babeserako 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa aplikatuko zaie, 994/1999 Errege Dekretua, zeinaren bidez izaera pertsonala duten datuen fitxategi automatizatuaren segurtasun neurrien Erregelamendua onartzen den, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Herri Jabetzako izaera pertsonaleko fitxeroei buruzkoa, eta Datu Babeserako Euskal Agentzia sortzen duena eta gainontzeko arauak.

Hamabigarrena. Gorabeherak

Epaimahaiak sortzen diren zalantzak argituko ditu, eta hautaketa prozesua ondo joan dadin beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian.

Hamahirugarrena. Legedia aplikagarria



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Kontutan izan beharko dira beti ere, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duen apirilaren 12ko 7/2007 Legea; Langileen Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duen martxoaren 24ko 1/1995 Legea; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea; Funtzio Publikoa birgaitzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea; martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onarturiko Estatuko Administrazioaren Zerbitzu Orokorreko pertsonalaren sarrerako Erregelamendu Nagusia; apirilaren 15eko Eusko Jaurlaritzako 86/1997 Dekretua; ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Toki Araubidearen gaietan indarrean daude lege xedapenak onartzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretua; UDALHITZ hitzarmena eta aplikagarri diren gainerako lege eta erregelamenduzko xedapenak.

Hamalagarrena. Aurka egitea.

Deialdi honen, bere oinarrien eta honen ondorioz datorren administrazio-egintza ororen aurka, nola Epaimahai kalifikatzailearen jardunetik ondorioztatzen direnen aurka ere, interesatuek azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuan aurreikusitako kasuetan eta moduez jo ahala izango dute.

GAITEGI OROKORRA

1. Iturgintza zein saneamenduko elementuak eta oinarrizko ezagutzak. Lanabes motak eta horien erabilera. Materialak.
2. Igeltserotzako elementuak eta oinarrizko ezagutzak. Lanabes motak eta horien erabilera. Materialak.
3. Margo-lanerako elementuak eta oinarrizko ezagutzak. Tresnak eta horien erabilera. Materialak.
4. Sarrailagintzako elementuak eta oinarrizko ezagutzak.
5. Matxurak eta oinarrizko konponketak zerbitzuetan. Premiazko konponketa-lanak.
6. Hiri tresneriaren konponketak.
7. Saneamendu-sarea eta hustubideak; garbiketa eta mantentze-lanak.
8. Bide seinalizazioa: motak eta ezaugarriak.
9. Lorategietako mantenimendu-lanak. Erabiltzen diren makineriaren ezagutza, zainketa eta erabilera.
10. Lorezaintza; zuhaixka zein zuhaitz motak, lurzoru motak, konposta eta horren erabilera, lore motak; horiek landatzeko garaia, egutegia eta zainketa. Ureztatze sistemak. Gaitzen aurkako tratamenduak.
11. Elektrizitatea. Oinarrizko lanak eta tresnak.
12. Laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko neurriak, lanpostuari dagokionean; arriskuak, segurtasun-neurriak, altuerako lanak.
13. Azkoitiko udalerriaren ezagutza; kale-izendegiari buruzkoak, nekazal ingurunea, industrialdea...



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

MAKINISTENTZAKO BERARIAZKO GAITEGIA

1. Hondeamakina eta antzeko makineriaren erabilera; kargatzeko unitate mugikorra, garabi edo bestelako makinaren dispositibo mekanikoak.
2. Hondeamakinen ezaugarri fisikoak, neurriak, pisua, motor mota, kontsumoa, txasisa, abiadura, errotazioa, gurpilak, direkzioa, ekipoa, kabina, zirkuitu hidraulikoa (bonbak, blokeoak...), zirkuitu elektrikoa (bateria, alternadorea...).
3. Hondeamakina eta antzeko makineriaren eta horiei eranstean zaizkion elementuen mantenimendua. Motorraren olioak, hozketa eta hornikuntza. Ibilgailu horien ohiko matxurak eta konponketa arauak.

SOLDATZAILEARENTZAT BERARIAZKO GAITEGIA

1. Soldatze kontzeptu orokorrak.
2. Soldatze moten ezagutza. Soldatzeko teknika desberdinak eta juntak lotzeko erak.
3. Soldatzeko ekipoaren ezaugarriak.
4. Soldatze tresnak, tresnen erabilera eta horien mantentze lanak.
5. Gasaren emaria soldatze prozesuetan. Gasaren ezaugarriak: erregaia eta erregarria. Gasaren presioa eta neurketa, tenperatura, metalen fusio puntuak, berotze-ahalmena.
6. Sugar desberdinen ezaugarriak eta aplikazioa. Erabili beharreko soldagailu eta ahokoak.
7. Material soldagarrien ezagutza.
8. Planoen eta soldatzeko sinboloen oinarritzko interpretazioa.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

I. ERANSKINA ESKAERA ORRIA

Deialdia: 3 PEOI LANPOSTU LAN-ITUNPEKO KONTRATU BIDEZ BETETZEKO

LANPOSTUA/PUESTO DE TRABAJO (Hautatu bat/Seleccinar uno) <input type="checkbox"/> MAKINISTA <input type="checkbox"/> SOLDATZAILE	Sarrerako Erregistroa /Registro entrada
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------

1.- DATU PERTSONALAK - DATOS PERSONALES

1. Deitura - 1º Apellido	2. Deitura - 2º apellido	Izena – Nombre	
N.A. - D.N.I.	Jaiotze-data – Fecha nacimiento	Telefonoak –Teléfonos	
Helbidea – Domicilio	Herria – Probintzia – Municipio-Provi.	Posta Kodea	Código Postal

2. HEZIKETA - FORMACIÓN

Deialdian eskatutako titulu akademiko ofiziala – Título académico exigido en la convocatoria

Titulua -. Título

3. ESPERIENTZIA – EXPERIENCIA (Lehiaketa fasea/Fase de concurso)

Sartze Data Fecha de Ingreso	Uzte Data Fecha de cese	Administrazio edo Enpresaren Izena Administración o empresa	Betetako lanpostua – Puesto ocupado



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

4. PRESTAKUNTZA OSAGARRIA - F. COMPLEMENTARIA (Lehiaketa fasea/Fase de concurso)

<i>Tituloaren Izena eta zein erakundeak eman duen</i> <i>Titulación y entidad que imparte la formación</i>	<i>Iraupena</i> <i>Duración</i>

5. ADIERAZI ZEIN HIZKUNTZATAN EGIN NAHI DITUZU ARIKETAK - INDIQUE EN QUE LENGUA DESEA REALIZAR LOS EJERCICIOS:

EUSKARAZ/ GAZTELANIAZ

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK – DOCUMENTOS QUE SE ACOMPAÑAN:

NA-ren fotokopia konpultsatua– Fotocopia del D.N.I compulsada

Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua – Fotocopia compulsada del título exigido para tomar parte en la convocatoria

1. Hizkuntza-eskakizunaren fotokopia konpultsatua edo baliakide den titularena, hala balegokio – Certificado del título compulsado del perfil lingüístico 1. exigido o título equivalente, en su caso.

C motako gida baimenaren kopia konpultsatua (makinisten kasuan) – Copia compulsada del carnet de conducir C (maquinistas)

Behean sinatzen duenak, eskaera hau dagokion aukeratzeko probatan onartua izatea ESKATZEN DU, eta bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela BAIEZTATZEN DU, eskatutakoa agiri original bidez zurituko duela hitz ematen duelarik.

El abajo firmante SOLICITA ser admitido en el proceso de selección y al mismo tiempo declara que son ciertos los datos que aparecen en la solicitud y que cumple todas las condiciones exigidas en las bases de la convocatoria, manifestando que aportará los documentos originales cuando le sean requeridos.

DATA/FECHA

SINADURA//FIRMA

**AZKOITIKO ALKATE-UDALBURUARI/
ALCALDE-PRESIDENTE DEL
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA